

JUAN SAN MARTIN

Hondarribiko euskararen lekukotasuna, Euskal Herriko hizkuntza Atlas-ean



Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa
OHIKO EUSKAL MINTZAMOLDEEN
ANTOLOGIA

Euskal Herriko 145 herritako grabaketa atalez osatutako 4 audio CD+testu lagungarria



Euskaltzaindia

Bilbo, 1999



Euskaltzaindiak argitaratu berria du *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa*. Ohiko euskal mintzamoldeen *Antologia*, zeinetan aurkezten dituen 145 herritako grabaketak eta liburua.

Liburu horren 83 eta 84. orrialdeetan datoz Hondarribian Jose Mari Etxebarriak Pedro Sagartzazuri 1988ko maiatzean egin zizkion inkestak, eta on daritzat Hondarribia aldiakari honetan ezagutzera ematea, hondarribiarrok ezagutu ditzaten inkestagileak (INK) eta lekuko (LEK) izan zuen P. Sagartzazuk "Arrain saltzea" eta "Txakurrana" gaiari buruz edukitako elkizketak.

J.S.M.

Hara hemen, hitzez-hitz:

Arrain saltzea

LEK.: Bai, bai, barkua, ori urrutira kusten da. Oloko barkua eldu da, ezagutz'ute leorretikan, oloko barko da. Ño! Sartu, eldu da ori. Orrek arraya baik! O, o, axalin, ariñ: "orrek eztu pizarra ba paño, orrek eztu, arrai gutxi dik orrek".

INK.: Zer da partida, bakoitzak artzen duena?

LEK.: Bakotxai tokatzen diona. Bi parte o iru parte o bost parte ttuen, batzuk geyo, bestik gutxiyo, nola den.

INK.: Gero emen kofradian jakak atera eta...

LEK.: Bai, benta.

INK.: Bai, jartzen dira horrela...

LEK.: Benta, arraya itteko; bentara, bai. Preziyua jartu ta asitzen die, goittik asitzen die, bajan, bajan, e?, ta ia señek se itten duten.

INK.: Eta ori nola deitzen da?

LEK.: Ori, benterua gizona eta gero an daosten emakumiak ayen zai, martxantak.

INK.: Emakumeak?

LEK.: Emakumiak ala gizasemiak igual.

INK.: Eta zer egiten dute martxantek?

LEK.: Martxantak se itte unten? Pues ari, se presiyo ugun "nik olateño bajatzen ba, artukut". Biño nola daosten bos, sei, amar, ogei lagun deste igual asitzen die eundikan. Ta eundi betti, betti, betti ta, ño!, oañtze presiyoa, laroei, laroei, irueita hemeretzi, betti asitzen denin, tak! Neetzako! Bale! Es nun posible geyo bajatzia seatik beste batek artuko baino. Uan, xeguratze isatikin denak ba pakarrak artuko zulan, ingo luke arraiak baja, baja, baja, berak nai dun presiyo... Biño an daoste bestiak sai jarriyak eta oañtzet neri konbeni zait presiyoa, tak! Neetzako ; e? Ta bestiak gelditzen die "alua, nik e artuko nike presiyoa, tak! Ba, ba!"

"Txakurrana"

INK.: Bai, nola ?

LEK.: Txakurrana.

INK.: Bai eta ori zer da ?

LEK.: Ori da, arraya igual gutxi samar ta bentara emateko serik es, ta itxekotz artze ute ta beste pixka at saldu ixilka, e, txakurrana. Ta ori gelditzen da mutillentzat, arrayoi. Barkuko eskifayantzat.

Oharrak: • ezagutz'ute: ezagutzen dute

- artuko baino: hartuko bainau (=baitit)
- deste: daude
- arrayoi: arra hori

EROSLE

CHARTER SUNDUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 HONDARRIBIA



Foru Kalea



Almirante Alonso Kalea, 12